

Printzipioa:

1. Ondoko helbidean konektatzen zara: <http://www.teacote.fr/stvincent/>

Zure erabiltzaile izena zure helbide elektronikoa da (ikastetxeari jakinarazi diozuna).

Zure lehen konexioan pasahitza ere zure helbide elektronikoa da. Berehala alda ezazu, ondoko erlaitzean: *Nire profila*

2. Mapa bat agertzen da, zure etxearekin, bi ikastetxeen lekuarekin, etxetik ikastetxera joateko bidearekin eta ikastetxeetako burasoen geolokalizazioarekin.

3. Geolokalizazio puntuetan klik eginez, zure etxetik hurbil bizi diren familiak hautatzen ahal dituzu, haiekin harremanetan sartzeko, banaka edo kontaktu zerrenda baten bidez.

4. «Kontaktu zerrenda» edo «harremanetan jarri» botoian klik egitean orri bat irekiko zaizu, zure mezuaren igortzeko.

Zure mezuan, ondoko gauzak egin ditzakezu:

- zure nortasuna eta zure helbidea eman,
- zure eskaera aurkeztu,
- zurekin harremanetan sartzeko moldea jakinarazi.

Aplikazioak ez dizu beste nehoen izenik edo helbide elektronikorik ematen.

Beraz, ez dakizu nori idazten diozun. Badakizu ikasle batzuen burasoak direla eta mapan ikusi ahal izan duzu non bizi diren.

Beraz, igortzen duzun mezuan, garrantzitsua da ahal bezainbat argibide ematea.

Zure mezua eskuratuko duten familiak zuri erantzuteko edo ez erantzuteko libre dira.

5. Atariko menuko «nire eskaerak» erlaitzean klik eginez, aplikazioaren bidez igorri eta errezibitu dituzun mezu guziak ikusten ahalko dituzu.

6. Webgunean edozein arazo tekniko izanez geroz, laguntza eskatzen ahal duzu, ondoko helbidean: [support@teacote.fr](mailto:support@teacote.fr) eta beste edozein galderen egiteko: [teacote@stvincent.eus](mailto:teacote@stvincent.eus)